

## Bioaniztasuna Europan

**E**spezien bioaniztasuna arriskuan dago. Hori esanda irakurle, ez dizugu ezer berririk azaltzen, gauza jakina baita gero eta espezie gutxiago dagoela gure planetan. Zoritxarreko oihartzuna lortu du Amazoniako bioaniztasunaren egoera kaskarrak, baina



Europar zerrendaturik dauden 12.000 landare-espezie basatietarik 2.400 desagertzeko zorian daude. Giza iharduera eta neurririk gabeko ustiapena dira europako altxor hori mehatxupean dutenak.

ba al zenekien Europan ere arazoa gero eta larriagoa dela? Ondorio horretara iritsi da Parisen burutu den Landare Basatiei Buruzko Lehen Biltzarra. Ondoko datuak argi dezake kontua: Europan zerrendaturik dauden 12.000 landare-espezie basatietarik 2.400 desagertzeko zorian daude. Egoera kezkarriaren arrazoiak aipatzeko orduan bestalde, bat etorri ziren Biltzarrean parte hartu zuten adituak: giza iharduera eta neurri-

rik gabeko ustiapena dira Europako altxor hori mehatxupean dutenak. Oso kontutan hartzeakoa.

## Handienetakoa eta zikinenetakoa

**2** 2 milioi dolar. Horixe da Maracaibo lakuaren oreka ekologikoa berreskuratzeko behar den dirutza. Eta agidanez, lortzear dago, eztabaida luzeen ondoren, Andetako Sustapenerako Batzordeak diru-laguntza ematea erabaki duela. Premia zegoenik ezin uka.

Venezuelako Maracaibo lakua munduko lakurik handienetakoa da. Makina bat ibaik isurtzen du bere ura bertara, baina ez da horregatik ospetsu egin. Petrolioak damaio lakuari ospea eta halaber, petrolioaren ustiapenak poluzio-maila handia eragin du bertan. Onartu berri den diru-laguntzaren erabilpena beraz, poluzioaren kontrako tratamendu-sistema berriak inplementatzera zuzenduko da. Iragarritako iharduerean artean, Maracaibo lakuaren fauna eta floraren berreskurapen-prozesua dago, hots, lakuaren berezko oreka ekologikoa berantolatzea. Urtetako basakeriari eta espezie askoren berreskurapenari aurre egin beharko zaie, beraz. Bistan de-

nez, ondorioak ez dira epe motzera nabarmenduko, baina aurrerapauso garrantzitsua denik ezin da uka.

## Basorik ez aurki Hegoamerikan

**U**ste baino larriagoa da basoen egoera Hegoamerikan. FAO erakundeak eman berri dituen datuen arabera, baso-soiltzeak kezkarritzat jo daitekeen muga gainditu egin du bertan eta tamalez, joera beretsuari eutsiko omen diote datozen urteotan ere.

Arazoa orokorra da Hegoamerika osoan. Salbuespen bakarrak Uruguay eta Txile dira, bertan hala-hola lortu baita basoari eustea. Aldiz, Jamaikan basoen %7,2 galdu izan da urterero, %4,8 Tahitin eta %2,9 Costa Rican. Arrazoiak era askota-

koak izan badaitezke ere, nekazaritzarako lursail berriak erabili izana jo da eragile nagusizat. Basoak erabilpen komertzialetara egokitu behar direla diote FAO erakunde biologoek eta iragarritakoaren arabera, norabide horretan emango dira hurrengo urratsak. Asian gertatua aipatu izan da eredutzat, bertan basoen ustiapen kontrolatuak baliabide naturalen eta bertakoen ekonomiaren arteko oreka bultzatzen lagundu izan baitu. Hala bedi!

## Azaleko minbizia eta urkia

**A**zaleko minbizia-aren edo melanomaren kontrako sendabide garestien beharrik ez dagoela jakin dugu aste honetan. Orain arteko datuak baieztatzen, urkiaren azala melano-

Uste baino larriagoa da basoen egoera Hegoamerikan. Baso-soiltzeak kezkarritzat jo daitekeen muga gainditu egin du bertan eta tamalez, joera beretsuari eutsiko omen diote datozen urteotan ere.





Hemengo urkiaren azalaz eta Afrikan hazten den beste zenbait urkirenaz baliatuz, azaleko minbiziaren edo melanomaren hazkundera gerarazten duen substantzia lortu da.

maren kontrako biderik eraginkorrena izango da etorkizunean, *Nature Medicine* aldizkarian argitara eman duten ikerketaren arabera.

Ez da albiste hori plaza-ratzen den lehen aldia, baina oraingoan urtetako emaitzak bildu dituzte baieztapen horretara iristeko. Hemengo urkiaren azalaz eta Afrikan hazten den beste zenbait urkirenaz baliatuz, melanomaren hazkundera gerarazten duen substantzia lortu da.

### Marrazoak eta gure osasuna

**M**arrazoen kartilagoa da datozen urteotan minbiziaren aurkako borrokan oso kontutan

hartu beharko dugun "lehengai". Kubako ikerlari-talde batek hori uste du eta 1992az geroztik, marrazoaren kartilagoz osaturiko sendabide berria aztertzen dihardu. Orain arteko emaitzek itxaropentsu azaltzeko motiboa ematen dutela iragarri dute eta hurrengo urtean aurkeztu ahal izango da ofizialki Cartilage-C izeneko substantzia.

Sendabide berriak zenbait zelulen bat-bateko ugalketa-prozesuak moneztzeko gaitasuna duela baieztatu dute Kubako ikerlariak eta minbiziaren kontra ezezik, artritaren edota diabetearen aurka ere erabili ahal izango da.

### Eulien kontrako koloregaiak

**M**exikoko kostaldean sarri agertzen diren euli-izurriteak gerarazteko produktu berria aurkeztu dute EEBBetako Kimika Elkartearen azken bilkuran. *Ceratitis capitata* eta *Anastrepha ludens* euliak akabatzen dituen produktu berriak ez dio batere kalterik egiten gizakiari, bere konposatuak makina bat zereginetan erabili ohi diren koloregaiak direlako, ezpainak tintatzeko baliatzen diren B floxina gorria eta uranio horia esaterako. Elkarteko bozeramaleek ziotenez, koloregaien molekulek argia

zurgatu egiten dute eta prozesu horretan euliak akabatzen dituzten substantzia oxidatzaileak sortzen dira. Substantzia horiek proteinei egiten diete eraso eta 12 orduren buruan euliak hil egiten dira. Euli-izurriteen kontrako produktu berriak gizakiari ezezik, ingurugiroari ere ez dio kalterik eragiten. Izan ere, koloregaien abantailarik handiena zurgapen-ahalmena azkar samar galtzean datza: argitan ordu pare batez utziz gero erabat galtzen dute ahalmen hori.

### Urak etengabe gora

**I**tsasoaren ur-maila etengabe gora doa. Topex-Poseidon sateliteak igorritako datuen arabera, azken 10 urteotan 3,7 milimetro igo da eta ez dirudi joera horren aurka ezer egiterik dagoenik oraingoan.

Igoera horren arrazoiak asko izan litezke. Aldian

aldiko fenomenoek landa, berotegi efektuaren ondorioztat jo izan den klima-aldaketa aipatzen da eragile nagusitzat, baina ez dago oraindik erabateko segurtasunik. Datu gehiago behar da eta horretarako oso baliogarria gertatu da Topex-Poseidon satelitea. Bere lanaldia ordea, aurki amaituko da. 1992an jaurti zuten satelite hori eta 1999an amaituko da bere behaketa-lana. Urte horretatik aurrera izan ere, sateliteak erabiltzen dituen eguzki-zelulak erabat hondaturik egongo dira erradiazioaren eraginez. Oraingoan ez dago satelite hori ordezkatzeko proiekturik eta ondorioz, beharrezkoak diren datu horiek eskuratzeko luze jo deza-keela iragar genezake. Denborak esango du.



**I**tsasoaren ur-maila etengabe gora doa. Topex-Poseidon sateliteak igorritako datuen arabera, azken 10 urteotan 3,7 milimetro igo da eta ez dirudi joera horren aurka ezer egiterik dagoenik oraingoan.

